DURANGO
Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

## AKTA

**HERRIGINTZAKO INFORMAZIO BATZORDEKO OHIKO BILKURA**

**TOKIA:** Udaletxeko bigarren solairuko batzar gela
**DATA:** 2025eko abenduaren 9a.
**HASIERA ORDUA:** 16:00
**BUKAERA ORDUA:** 16:41

## ACTA

**SESIÓN ORDINARIA DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE CIUDANANÍA**

**LUGAR:** Sala de reuniones de la 2ª planta de la Casa Consistorial
**FECHA:** 9 de diciembre de 2025.
**HORA DE INICIO:** 16:00
**HORA DE FINALIZACIÓN:** 16:41

**PARTE-HARTZAILEAK/ASISTENTES**:

**PRESIDENTEA**
PRESIDENTA

- Jesica Ruiz Pérez (PSE-EE)

**ZINEGOTZIAK**
CONCEJALES

- Asier Perugorria Garcia (EAJ-PNV)
- Carlos David Garcia (PP)
- Iker Txertudi Gaztelu (EAJ-PNV)
- Juan Antonio Bueno Moreno (EH Bildu)
- Jorge Varela Dorrio (HE)
- Nagore Lozano Zarandona (EH Bildu)
- Arantza Barrenetxea Arruti (EAJ-PNV)

**IDAZKARI NAGUSIA**
SECRETARIA

- Teresa Oleaga Larrinaga

**ORDEZKARIA**
POR DELEGACION

- Amaia Aranaga Libano

Presidenteak hasiera eman dio bilerari, eta saio honetarako gai-zerrendan jasotako gaiak jorratzen hasi dira. Hauexek dira:

Iniciada la sesión por la Presidenta, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

1. **Aurreko batzordeko aktaren irakurketa eta onarpena, bidezkoa balitz.**

   Zalantza sortu da, eta ezin izan da ziurtatu ea aurreko batzordeko audioakta kide guztien eskura dagoen ala ez; izan ere, oraindik omen dago arazoren bat presidentearen sinadurarekin. Hortaz, auzi hau aztertzekotan geratu dira.

1. **Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.**

   Surge la duda de si la audioacta de la anterior comisión está a disposición de todas las personas miembro, ya que todavía hay algún problema con la firma de la Presidenta. Por lo tanto, se ha quedado en esclarecer este asunto.

2. **Herrigintza arloaren kudeaketa-txostena.**

Azaroko kudeaketa-txostena aurkeztu da, eta

2. **Informe de gestión del Área de Ciudadanía.**

Se presenta el informe de gestión de diciembre.

ez da horri buruzko galderarik egon.

No hay preguntas al respecto.

**3. Gazteria eta Kirola: sexu-aholkularitza.**

**3. Juventud y Deporte: asesoramiento sexológico.**

Arloko teknikariak sexu-aholkularitza egitasmoaren berri eman du, eta berrikuntzak azaldu ditu. Horretarako, azalpen-txostena jarri du batzordeko kideen esku. Dokumentuak honako atalak jasotzen ditu:

El técnico del área informa del proyecto de asesoramiento sexológico, y explica las novedades. Para ello, pone a disposición de las personas miembro de la comisión un informe explicativo. El documento recoge los siguientes apartados:

- Zerbitzuaren deskribapena
- Helburuak
- Jarduera-eremua
- Oinarrizko aurrekontua

- Descripción del servicio
- Finalidad y objetivos
- Ámbito de aplicación
- Presupuesto base

Arloko teknikariak bere azalpena amaitu duenean, ondorengo galderak egin dizkiote:

Una vez que el técnico del área ha finalizado su exposición, le formulan las siguientes preguntas:

1. EH Bilduko zinegotziek honako galderak egin dituzte (alboan arloko teknikariaren erantzunak):

- Zenbatero antolatzen dira hitzaldi/tailerrak? (Bi hilabeterik behin).
- Zein da erabiltzaile kopurua? (Oraindik ez dago datu zehatzik, eduki bezain pronto kudeaketa-txostenean islatuko dira, generoaren arabera bereizita).
- Nor dira hitzaldi/tailerren hartzaileak? (Nerabeak/gazteak, familiak, etab. Nerabe/gazteek azaldutako zalantzen arabera egokitzen da edukia).
- Zenbatekoa da lizitazioaren aurrekontua? (20.000 euro).

2. Alderdi Popularreko zinegotziak proposatu du era horretako egitasmo bat eskualdeko gainerako herriekin batera antola eta eskain daitekeela, eraginkorragoa izate aldera.

1. EH Bildu formula las siguientes preguntas (con las respuestas del técnico del área a continuación):

- ¿Cada cuánto tiempo se organizan las charlas/talleres? (Cada dos meses).
- ¿Cuál es el número de personas usuarias participantes? (Todavía no hay datos concretos, tan pronto como se tengan se reflejarán en el informe de gestión, desagregados por género).
- ¿Quiénes son las personas destinatarias de las charlas/talleres? (Adolescentes/jóvenes, familias, etc. El contenido se adapta a las dudas planteadas por los y las adolescentes/jóvenes).
- ¿Cuál es el presupuesto de licitación? (20.000 euros).

2. El Concejal del Partido Popular propone que un proyecto de este tipo pueda organizarse y ofrecerse conjuntamente con el resto de localidades de la comarca, con el fin de ser más eficaz.

**4. Kultura: Gabonetako programazioa.**

**4. Cultura: programación de Navidad.**

Batzordeko presidenteak Gabonetako programazioaren berri eman du, aldez aurretik jarri dena batzordeko kideen esku.

Zuzenketa bat egin du kideei eskuratutako dokumentuan: urtarrilaren 2ko jolas-egunean egingo den tailerra globoflexia-tailerra izango da.

EH Bilduko zinegotziek galdetu dute ea ibilbideak aurreko urteetakoa izaten jarraituko duen, eta presidenteak baietz erantzun die.

5. **Dirulaguntzak:** etxebizitzak eraberritzeko, haurtzaindegiko gastuak, errotuluak euskaratzeko gastuak, kultura arloko ez ohiko laguntzak, goi-mailako kirolariak, desgaitasuna duten pertsonak.

Presidenteak eta arloko teknikariek goian aipatutako emandako dirulaguntzen berri eman dute.

6. **Beste gai batzuk**

- Bizkaiko Foru Aldundiaren *Batuz, jarduera ekonomikoa duten zergadun guztientzako kudeaketa-eredu integral*aren berri eman da, eta azaldu da herriko elkarteei aukera eman zaiela horri buruzko prestakuntza antolatzeko; izan ere, 2026ko urtarriletik aurrera elkarteak derrigortuta egongo dira Batuz eredua erabiltzera.

  EH Bilduk eskatu du haiek ere jaso nahi dutela elkarteei bidaliko informazioa. Batzordeko presidenteak esan du informazioa bidaliko zaiela.

- Psikobonoa. Arloko teknikariak azaldu du urtero egokitzen direla zerbitzu horri dagozkion tasak (abenduan). Hala ere, oso egokitzapen txikia dagoela aurreikusita.

- Taxilagun. Arloko teknikariak azaldu du

La Presidenta de la Comisión informa de la programación navideña que previamente se ha puesto a disposición de las personas miembro de la Comisión.

Hace una corrección en el documento enviado: el taller que se celebrará el día 2 de enero será el taller de globoflexia.

EH Bildu pregunta si el recorrido seguirá siendo el de años anteriores, a lo que la presidenta responde afirmativamente.

5. **Subvenciones:** rehabilitación de viviendas, gastos de guardería, gastos de traducción al euskera de rótulos, subvenciones extraordinarias para actividades culturales, deportistas de alto nivel, personas con discapacidad.

La presidenta y las técnicas de las áreas correspondientes informan de la resolución de las subvenciones arriba citadas.

6. **Otros asuntos de interés**

- Se informa sobre el modelo de gestión integral *Batuz* de la Diputación Foral de Bizkaia, un modelo de gestión integral para todas las personas contribuyentes con actividad económica, y se explica que se ha ofrecido a las asociaciones locales organizar una formación al respecto, ya que a partir de enero de 2026 las asociaciones estarán obligadas a utilizar el modelo *Batuz*.

  EH Bildu solicita recibir la información remitida a las asociaciones. La Presidenta de la Comisión dice que se les enviará dicha información.

- Psicóbono. La técnica del área explica que anualmente se adaptan las tasas correspondientes a este servicio (en diciembre). Sin embargo, se prevé una adaptación muy reducida.

- Taxilagun. La técnica del área explica

Taxilagun zerbitzuaren ordutegian aldaketa egingo dela: goizeko zerbitzua mantenduko da, eta arratsaldekoa, gidariak libre egotearen arabera eskainiko da. Egokitzapen honen ondorioz, beste bi taxi-gidari batu zaizkio zerbitzuari.

que se va a realizar un cambio en el horario del servicio Taxilagun: se mantendrá el servicio de mañana, y el de tarde, se ofrecerá en función de la disponibilidad de los taxis adscritos al servicio. Como consecuencia de esta adaptación, se han sumado al servicio otros dos taxis.

- Enplegu Plana: nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko zerbitzua. Arloko teknikariak azaldu du zerbitzua aurrera eramateko kontratazio-elkarrizketak egin dituztela, eta erabakita dagoela zein pertsona kontratatuko diren. Horrez gain, ostiralean, abenduaren 12an, emango da zerbitzua ezagutzera prentsaurrekoaren bitartez.

- Plan de Empleo: servicio para combatir la soledad no deseada. La técnica del área explica que se han realizado entrevistas de contratación para llevar a cabo el servicio, y que ya está decidido qué personas se van a contratar. Además, el servicio se dará a conocer el viernes, 12 de diciembre, a través de una rueda de prensa.

**7 . Galde eskaerak**

Ez da aparteko galderarik egin.

**7. Ruegos y preguntas**

No se han realizado más preguntas.

Deialdiko gai-zerrenda amaitu ondoren, presidenteak bukatutzat eman du bilkura. Akta hau idatzi da eta nik, idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretaria doy fe.